

Euskadik erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua indartzeko konpromisoa hartu du, etxebizitza eskuratzeko erronka sozialari anbizioz aurre egiteko

- **Eusko Jaurlaritzak Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialeko eragileak elkartu ditu Imanol Pradales lehendakaria buru izan duen ekitaldi batean, eta adierazi du etxebizitza herri-erronka nagusietako bat dela: “Etxebizitzaren arazoa belaunaldien arteko elkartasunarekin zuzen-zuzenean lotuta dago. Gure betebeharra da elkartasun horren alde lan egitea gizarte justuago bat lortzeko. Gure ondotik etorriko direnei etorkizun oparo bat eskainiko dien Euskadi eraiki nahi dugu, ilusioz bizi-proiektua egin ahal izan dezaten”**
- **Denis Itxaso Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak “erantzukizun kolektiboa” eskatu du, eta iragarri du Foro Sozial iraunkor bat sortuko dela “etxebizitzaren merkatua tentsionatzen duen ekaitz perfektuaren aurrean herri gisa erantzun berriak” sustatu eta koordinatzeko**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailak 17.- Eusko Jaurlaritzak Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala sinatzen duten eragileak deitu ditu asteazken honetan, etxebizitza-politika berriak sustatzeko eta bereziki gazteei eragiten dien arazo bati herri gisa erantzuna emateko Foro Sozial iraunkor bat sortuko dela jakinarazteko. Lehendakaritzan egin den ekitaldiaren buruan Imanol Pradales lehendakaria izan da, eta erronka handi horri belaunaldien arteko elkartasunaren ikuspegitik heltzearen garrantzia azpimarratu du, Euskadik ongizatean hazten jarrai dezan inor atzean utzi gabe. “Etxebizitzaren arazoa ez da gaurko arazoa bakarrik, baina gaurko arazoa ere bada. Eta irtenbide egokiak aurkitu behar dizkiogu. Izan ere, bizi-proiektu bat ezin da eraiki emantzipatu ahal izan gabe. Gaur egungo gazteek, zoritxarrez, urruti ikusten dute aukera hori. Eta horrek eragin zuzena du euren erabakietan eta etorkizunerako euren asmoetan. Eta hori ezin dugu onartu. Etxebizitza eskuratu ahal izatea herri-erronka bat da, eta halaxe ari gara lantzen”, ziurtatu du lehendakariak, gobernu-programak gazteen emantzipazioa errazteko eta etxebizitza eskuratzeko aukerak hobetzeko aurreikusten dituen neurriak eta erantzun zehatzak gogoratzean.

Denis Itxaso Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak Sail berriaren buruan den taldea aurkeztu du, eta Euskadin etxebizitzaren arazoak eskatzen duen lankidetza, bai erakundeen artekoa bai publiko-pribatua, indartzearen alde agertu da, era horretara “Gobernu berriak etxebizitzarako eskubidearekin hartu duen konpromisoa” indartuz.

Foro berria elkarlanerako plataforma izateko eratuko da, eta “inplikaturako eragile guztiak bilduko ditu: gizarte zaugarriena, bereziki gazteak, gizarte-organizazioak eta hirugarren sektorekoak, erakundeak, Unibertsitatea eta sustapenaren eta eraikuntzaren sektoreko ekimen pribatua. Baita finantzen mundua ere”, esan du sailburuak, bizitzeko leku bat izateko pertsona guztien eskubidea gauzatzeko duten politika berriak garatzeko eta bultzatzeko.

Itxasok bere hitzaldia honako hau esanez jarraitu du: “aurrean dugun ekaitz perfektuak lotura estua du biztanleria berarentzat etxebizitza-kopuru handiagoa behar izatearekin, bizikidetzaren unitateetako kideak gutxitzen ari baitira, bai eta errenten eta alokairuaren prezioen arteko gero eta disoziazio handiagoarekin ere, familien hileko soldataren gero eta ehuneko handiagoa eskatzen baitute”.

Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialako eragileen lan-bilera

Deitutako eragileekin egin den bileran, Etxebizitzako sailburuak itunaren helburuekiko konpromisoa berretsi du: hurrengo 12 urteetan alokairu eskuragarriko etxebizitzaren kopurua bikoizteko, 50.000ra iritsi arte; etxebizitza babestuen parkea % 50 baino gehiago handitzeko, egungo 74.000 etxebizitzatik 116.000ra iristeko; eta birgaitutako 350.000 etxebizitzara iristeko, urteko erritmoa bikoiztuz.

Itxasok Sailak legegintzaldi honetarako dituen helburuetako batzuk ere zehaztu ditu: 7.000 etxebizitza babestu berri jartzea herritarren eskura, horien erdiak gazteentzat; funts bat sortzea eta zuzkitzea merkatuan etxebizitzak erosteko eta alokairu babestura bideratzeko; edo etxebizitza-plan bereziak garatzea tentsio handiko eremuetarako. Etxebizitza-arduradunak iragarri du foru-aldundiekin batera fiskalitatearen arloko jarduera-lerroak ezartzeko asmoa duela, etxebizitza babestua merkatuan jartzea sustatzeko eta herritarrek etxebizitza horiek eskuratzeko erraztasun handiagoa izateko, bereziki gazteek, horien soldatak, gaur egun, gurasoek beren adinean kobratzen zutenaren ehuneko 50-75 artekoak baitira. Hori dela eta, etxebizitza garestitzearen eta balizko erosle berrien diru-sarrerak jaistearen ondorioz, gazteen errentak, orain arte inoiz ez bezala, adinekoen errentetara transferitzen ari dira bai pentsioen bidez bai alokairuen bidez” adierazi du Itxasok bere hitzaldian. Ildo beretik, sailburu berriak helarazi du finantza-sektoreekin eta eraikuntza-sektorearekin elkartzeko asmoa duela, gaur egungo etxebizitza-eskaintza igotzeko formulak aztertzeko.

Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren jarraipenerako txostena

Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren bileran, lortutako akordioaren egungo egoera eta ezarritako helburuen betetze-maila aztertu da. Bere azalpenean, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren zuzendariak, Mario Yoldik, 351 milioi eurotan kokatu du Etxebizitza Sailaren eta bere sozietate publikoen inbertsioa, eta horiei alokairuko 80 milioiko laguntzak gehitu behar zaizkie, bai eta erosketarako eta alokairuko desgrabazioetako 450 milioi ere. Guztira, ia 900 milioi euro dira, Euskadiko BPGren % 1, eta ehuneko hori % 1,5era eramanez nahi da datozen hamabi urteetan.

Yoldik beste datu bat ere partekatu du: 2024ra arte, alokairu eskuragarriko 1.000 etxebizitza eraikitzeko laguntzak eman dira, eta zenbatekoa 37 milioi eurokoa izan da. Alde horretatik, alokairu eskuragarriko etxebizitzak merkatutzeko helburuak bermatzeko lurzoru-erreserba estrategikoa izatera bideratutako politikak indartzeko beharra nabarmendu du. Atal horretan, berretsi du Sailak 2.742 etxebizitzatarako dituen erreserbak handitu behar direla, eta udalen aldetik inplikazio handiagoa eskatu du. Datu bat ematearren, azpimarratu du Sailak 8.000 pertsonari baino gehiagori aitortu zuela EES eta 10.000 izatera iristea espero dela. *Gaztelagun* programak 7.288 gazte onuradun ditu, eta horrek urtean 18 milioi euroko laguntzak eskatzen ditu, eta urtebetean programa bikoiztu egin da. Hasieratik 11.000 gazte bako bako gehiagok jaso dituzte laguntza horiek.

Jarraipen-txostenaren arabera, Euskadiko 43 udalerrik betetzen dituzte tentsio handiko eremu izendatzeko baldintzak, alokairu-prezioen igoerari muga jarri ahal izateko, eta neurri horien onuradun udalerrri horietan bizi den Euskadiko biztanleriaren % 68 ere izan liteke (1,5 milioi pertsona); babes publikoko etxebizitza bat eskuratzea ahalbidetzen duen gehieneko diru-sarreraren tarte handitzeko; edo Eusko Jaurlaritzak abalen lerro bat sustatzeko, pertsona kalteberentzako errentamendu-kontratuen finantzak estaltzen laguntzeko izango litzatekeena.

Etorkizun hurbilari begira, jarraipen-txostenak lehentasun batzuk ezartzen ditu: zerga-erreforman eragitea, haren neurriak Itun Sozialaren helburuekin lerrokatuta egon daitezen; gazteek etxebizitza eskuratzeko erraztasunak izateko neurriak indartzea; lurzoru-erreserba estrategiko baten sorrera bizkortzea; udalek etxebizitza-politiketan gehiago parte hartzea eta tentsio handiko eremuak izendatzeko laguntza ematea; eragile pribatu eta sozial berriak mobilizatzea etxebizitza babestuen jarduketak finantzatzeko; etxebizitzaren gida plan berria diseinatzea; eta sailburuak iragarri duen foroa abian jartzea.